



## APLIKAZIO INFORMATIKOAK

### Legelarien laguntzan

#### 1. Dokumentuak gordetzeko: Dropbox *versus* Google Drive



Biltegi birtual bat edo motxila bat irudikatu eta horrelakoak dira biak: bertan gorde daitezke dokumentuak eta edonon egonik kontsultatu, aldatu edo berriak jaso. Sarera konexiorik izanez gero, euskarri fisikoak erabili beharrik ez dago, biltegiko artxibo guztiak kudeatu baitaitezke: irakurri, postaz bidali, kopia egin eta abar. Aholku bat: laneko dokumentuak gordetzeko erabili daiteke bat, eta etxeko paperak jasotzeko profitatu daiteke bestea.

- (1) Alta emateko helbide elektronikoa bat ematea nahikoa da.
- (2) Edozein ordenagailu, tableta edo sakelako telefonotik irekitzen dira.
- (3) Nahi diren artxiboak partekatu daitezke beste norbaitzuekin.
- (4) Artxibo jakin bati dagokion lotura bakarrik bidali daiteke postaz, hartzaileak artxibo hori bakarrik zuzenean jaisteko; hartzaile hura edonor izan daiteke, aplikazio horietan alta eman gabea alegia.
- (5) Artxiboen segurtasuna areagotzeko, nahi izanez gero, pasahitza jarri daiteke erabili ahal den aldiro irekitzeko.
- (6) Zerbitzuak gutxieneko memoria kopuru bat doan ematen du; hortik gora ordaindu egin behar da (haien kudeatzaileak izaeraz enpresa pribatuak baitira).

#### 2. Dokumentuak fotokopiatzeko: Genius Scan



Sakelako telefonoan instalatu beharreko aplikazioa da; berez doakoa eta erabilerraza da. Dokumentu bat, faktura bat, liburuko orri bat eta antzekoak fotokopiatu nahi badira, edo datuak hartu, nahikoa da:

- (1) Aplikazioa ireki eta argazkia atera.
- (2) Irudia editatu dezakegu eta egokitu.
- (3) Irudia gorde; PDF formatuan gordetzen da.
- (4) Artxibo hori bidali daiteke posta elektronikoz. Gero erraz inprimatu daiteke, PDF formatuan dagoelako.



### 3. Notak hartzea hitz eginez: Dragon Dictation



Sakelako telefonoan edo tabletan instalatzeko aplikazioa da, doakoa eta erabilerraza ere. Askotan ideia bat, ohar bat edo txosten bat hitzez azkarrago eta, agian, hobeto adierazten dira.

- (1) Aplikazioa ireki eta grabatzeko botoia sakatu.
- (2) Hitz egin ahala, hitzak testu bihurtzen ditu aplikazioak. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta akats gutxiago egiten ditu aplikazioak, erabiltzailearen ahotsera poliki egokitzen joaten delako.
- (3) Gelditzeko botoia sakatu ostean, oharra prest dago gordetzeko.
- (4) Artxibo hori bidali daiteke posta elektronikoz.

### 4. Notak apuntatzea idatziz: Evernote



Aplikazio hori, oharrak hartzeko libretaren parekoa da. Hasteko, bertan jaso daitezke behin behineko oharrak eta zereginen zerrenda. Biana, horrez gain, gauza gehiago ere egin ditzake: argazkiak hartu, WEB orrietako testuak kopia, ikerketako datuak jaso eta abar.

- (1) Jasotako datuak edozein ordenagailu, tableta edo sakelako telefonotik berreskura daitezke; gainera, datu haiek edonorekin partekatu daitezke ere.
- (2) Notak bat etorrarazi daitezke aparatu desberdinetan, artxibo berari bizia emanaz eta eduki berdinarekin iraunaraziz guztietan.
- (3) Informazioa antolatu daiteke.
- (4) WEB orriak ebakitzeko edo mozteko aukera ematen du, hartara interesatzen den zatia gordetzeko.